

# HITZARMEN DUIN BATEN ALDE BIZKAIKO METALA GREBAN

## Ekainak 6, 7, 20 eta 21

Ekainak 3 astelehena, Bizkaiko Metaleko Hitzarmeneko negoziazio mahaia bildu da berriz. Nahiz eta sindikatuetatik bagenekien Bizkaiko Metaleko Patronalaren (FVEM) itxikeria eta bere posizioa inmobilista eta intransigentea ez zelan egun batetik bestera aldatuko (zerbaitegatik daramatzagu urte mordoa Hitzarmena izoztuta eta 16 hilabete baino gehiagoko alperrikako negoziaketa batzuk), uste genuen maiatzak 23ko mezua jaso zutela. Egun horretan, Bizkaiko Metaleko milaka langile izan ziren, grebarekin bat egiteaz gain, Bizkaiko Metaleko Hitzarmen justu baten eskean, Bilboko kaleak bete zituztenak. FVEMek ez du mezua jaso nonbait.

Zoritzarrez, beste behin ere, FVEMek, bere enegarren arduragabekeria demostrazioan, kontsentsua bilatzeko beste aukera bat galdu du eta negoziazio mahaian proposamen berri batekin aurkeztu da berriro; "konfliktuaren" etapa honetan, akordiora hurbildu gabe, gehiago urrunten gaituena, alde biak aurrez aurre jartzen gaituelarik.

### BILERAREN LABURPENA

Patronalaren proposamenaren edukiak, ez dio erantzuten urrunetik ere ez, Plataforma bateratuan ageri diren Bizkaiko Metaleko langileen aldarrikapenei .

> **Iraupena-** Patronalak 2018-2020 aldiaz hitz egiten du, eta sindikatuok 2018-2021 aldia aipatzen dugu. Nahiz eta horretan ere ez bat egin, Hitzarmenaren iraupena ez da izan ez eta izango akordio batera heltzeko oztopo gaintezin bat.

> **Ultraaktibitatea-** Patronalak atzera egin du, ultraaktibitatea soilik 2 urtekoa izan zedin zeukan asmoan. Onartzea du orain arte bezala jarraitza, hots, Hitzarmenak indarrean jarraitza berri bat sinatu bitartean.

> **Inaplikazioa-** Sindikatuek eta patronalak Gipuzkoako Paperaren Hitzarmenean jasota dagoenaren antzeko klausula bat ados-teko prest leudeke.

> **Soldatak-** Hau da ados ez gauden lehendabiziko atal garrantzitsua. Sindikatuok, iraupen urte bakoitzeo KPI+2ko igoera minimoen soldata taulentzat eta KPI+1% eskatzen dugu soldata errealentzat. Patronalak, sektoreko minimoen taulak igotzea baino ez du eskeintzen, 2018rako KPla, 2019rako 2018ko KPI+51, eta 2020rako 2019ko KPI+0,5%. Minimoen soldata tauletatik gorakoei ez die EZER eskaintzen! Gogoratu nahi dizuegu, milaka eta milaka langile direla, egoera horretan daudenak; hau da, sektoreko minimoa baino pixkat gehiago kobrazen dutenak, baina ez dutenak enpresako paktu edo hitzarmen propiorik. Beraz, milaka langile dauden kolektibo horrentzako, patronalak planteatzen duen soldata igoera "zero" da. Batzar honetan, patronalak berak onartu du, iragan urtarrilean egindako proposamen

ekonomikoa baino eskasagoa egin duela gaur. Edo oso dorpeak dira, edo ez daukate akordioetara heltzeko inongo asmorik.

> **Lanaldia-** Patronalak ez du sindikatuek eskatutako 8 orduko lanorduen jaitsiera onartzen, eta gainera, malgutasunaren baldintzak txarragotzeko bere asmoarekin jarraitzen du, orduak errekuperatu daitezkeen larunbatak 10era igoz.

> **Kontingentzia profesionalengatiko bajetako konplementua-** Patronalak atal hau ere txarragotzeko asmoarekin jarraitzen du. 100 %eko soldata osagarri edo konplementurako eskubidea murritzu edo eta zaitzea du helburu, zenbait lesio kontutan ez hartuz (esgintzeak, bihurketak...), In Itinere gertatzen diren istripuak lan istripua ez konsideratuz, 18 hilabete baino gehiagoko bajei, zein jada enpresakoak ez diren langileei soldata osagarriak ez ordaintzea...

> **Malgutasuna edo disponibilitatea-** Patronalak ez du sindikatuek egindako eskaera haintzat hartu nahi, hots, ebentualitate tasa altuak dituzten enpresetan malgutasuna murritzu edo mugatzea.

> **Ebentualitatea eta ETTak-** Patronalak ez du sektoreko ebentualitate handia murrizteko neurririk hartu nahi, ez eta enprestan ETT bidezko kontratazioa mugatu edo eta murrizteko neurririk hartu nahi.

> **Subrogazioa-** Patronalak ez du enpresa "matrizetan" lan egiten duten azpinkontraten subrogazioari buruz hitz egin nahi, nahiz eta enpresako lan estrukturalak, era jarraitu eta etengabe egin.

> **Laneko Osasuna-** Patronala ez dago prest inongo aldaketa nabarmenik egiteko gai honen inguruan, benetan langileentzako aurrerapauso nabarmen bat suposatuko duena.

> **Genero Berdintasuna-** Ez daude prest, betebehar legalek ezzrittakoaz gaindi pausuak emateko.

Patronalaren harrokeria eta arduragabekeriaren aurrean, tamalez ez zaigu geratzen, mobilizazioa eta greba besterik. Badirudi, hori dela ulertzen duten hizkuntza bakarra. Aurreko notetan ere esana dugu, eta berriro diogu, orain da gogor kolpatzeko momentua. Maiatzak 23ko deialdia arrakastatsua izan zen sektoreko ia langile guztien konpromezua izan genuelako, eta orain ezinbestekoa da arrakasta hori, ekainak 6 eta 7ko greba egunekin berrestea ( bestela maiatzak 23koak ez du ezterako balio izango).

Erabat konbentzituta gaude, ekainak 6 eta 7an, maiatzak 23an erantzun zen indar berarekin erantzuten bada, negoziazioak desblokeatzeko pausu erraldoi bat emango dugula, eta ondorioz patronalarekin akordioa behartuko dugula.

**BIZKAIKO METALERAKO HITZARMEN  
JUSTU ETA DUIN BATEN ALDE!**

# HITZARMEN DUIN BATEN ALDE BIZKAIKO METALA GREBAN

## 6, 7, 20 y 21 de junio

El lunes 3 de junio, se ha vuelto a reunir la mesa negociadora del Convenio del Metal de Bizkaia. Aunque desde los sindicatos éramos conscientes de la cerrazón de la patronal del metal de Bizkaia (FVEM), y de que su posición inmovilista e intransigente no iba a cambiar de un día para otro (no en vano llevamos años con el convenio congelado y más de 16 meses de negociaciones estériles), pensábamos que ya habrían recibido el mensaje del pasado 23 de mayo. Ese día, fueron muchos miles los trabajadores y trabajadoras del metal de Bizkaia, los que además de secundar la Huelga, inundaron las calles de Bilbao en una multitudinaria manifestación en reclamo de un Convenio Justo para el Metal de Bizkaia. Pues bien, parece ser que el FVEM no ha captado el mensaje.

Por desgracia una vez más, FVEM, en su enésima demostración de irresponsabilidad, ha perdido otra oportunidad para buscar el consenso y se ha vuelto a presentar en la mesa negociadora con una propuesta que a estas alturas del "conflicto", lejos de buscar el acuerdo, nos aleja más del mismo y nos aboca al enfretamiento.

### RESUMEN REUNIÓN

El contenido de la propuesta de la patronal, no responde ni de lejos a las reivindicaciones de los trabajadores y trabajadoras del metal de Bizkaia reflejadas en la plataforma unitaria.

> **Vigencia**- La patronal habla del periodo 2018-2020, y los sindicatos de un periodo de 2018-2021. Aunque no coincidan, la vigencia del convenio no ha sido ni será un obstáculo insalvable para llegar a un acuerdo.

> **Ultractividad**- La patronal se ha echado atrás en su intención de que la ultractividad fuera solo de 2 años. Acepta que siga como hasta ahora, es decir, que la ultraactividad sea indefinida; es decir que el convenio este en vigor siempre hasta la firma de uno nuevo.

> **Inaplicación**- Sindicatos y patronal podrían aceptar una cláusula similar a la recogida en el convenio del papel de Gipuzkoa.

> **Salarios**- Este es el primer gran punto de desacuerdo. Los sindicatos pedimos subidas de IPC+2% en las tablas de mínimos y de IPC+1% para salarios reales. La patronal lo único que ofrece es la subida de las tablas de mínimos del sector con un IPC para el 2018, IPC 2018+1% para el 2019, y el IPC 2019+ 0,5% para el 2020. Para Salarios Reales por encima de tablas ¡no ofrece NADA ! Recordaros que en esta situación hay miles y miles de trabajadores y trabajadoras; es decir, que cobran un poco más que el mínimo del sector pero que no tienen ni pacto ni convenio propio en su empresa. Pues bien, la subida que plantea la patronal para este colectivo muy numeroso es "cero". En la reunión

la propia patronal reconoce que la oferta económica actual es incluso peor que la que ella misma hizo el mes de enero. O son muy torpes o no tienen ningún propósito para llegar a acuerdos.

> **Jornada**- La patronal no acepta la reducción de jornada de 8 horas planteada por los sindicatos, y además sigue con su intención de empeorar la disponibilidad, aumentando a 10 los sábados recuperables.

> **Complemento bajas por contingencias profesionales**- La patronal sigue queriendo empeorar este aspecto. Además de querer endurecer el acceso al complemento del 100% excluyendo algunos tipos de lesiones (esguinces, torceduras...). No considerar los accidentes in itinere como accidentes de trabajo, quieren excluir del pago del complemento a las bajas que se alarguen más allá de los 18 meses, o los que ya no pertenezcan a la empresa.

> **Flexibilidad o disponibilidad**- La patronal no acepta la petición sindical de limitar o reducir su aplicación en empresas con altas tasas de eventualidad.

> **Eventualidad y ETTs**- La patronal no acepta medidas para reducir la alta eventualidad del sector, ni medidas para limitar o reducir la contratación vía ETT de las empresas.

> **Subrogación** - La patronal no acepta hablar de la subrogación de subcontratas que desarrollan de manera habitual e ininterrumpida labores estructurales de las empresas "matrices".

> **Salud laboral**- la patronal no está dispuesta a hacer ningún cambio sustancial en esta materia que suponga un avance real para los trabajadores y trabajadoras.

> **Igualdad de género**- No están dispuestos a dar pasos, más allá de los que por obligación legales dispongan.

Ante la arrogancia e irresponsabilidad de la patronal, por desgracia no nos queda más que la movilización y la huelga. Parece ser que es el único lenguaje que entienden. Lo decíamos en notas anteriores y lo volvemos a repetir: ahora es el momento para golpear fuerte. La convocatoria del 23 de mayo fue un éxito gracias al compromiso de la práctica totalidad de los trabajadores y trabajadoras del sector. Y ahora es absolutamente necesario refrendarlo con la huelgas del 6 y 7 de junio ( Si no la del 23 de mayo no habrá valido para nada ).

Estamos convencidos de que si el 6 y el 7 de junio se responde de con la misma contundencia que el día 23 de mayo, se habrá dado un paso gigante para el desbloqueo de las negociaciones y para forzar a un acuerdo a la patronal.

**¡POR UN CONVENIO JUSTO Y DIGNO  
EN EL METAL DE BIZKAIA!**